


G E R N I K A - L U M O

# XIII. IDAZLAN KOADERNOA

## Ipuin zoragarriak

**Lehen Hezkuntza**

G E R N I K A - L U M O

2014 urtea

edizioa


Argitaratzailea:
• **Gernika-Lumoko Euskara Zerbitzua eta Hezkuntza Saila.**

Laguntzaileak:
• **Allende Salazar Ikastetxea.**
• **Barrutia Eskualde Ikastetxea.**
• **Mertzede Ikastetxea.**
• **San Fidel Ikastola.**
• **Seber Altube Ikastola.**

Portadaren egilea:
• **ENARA ONDARZA** (LH 4. mailako ikaslea)

Babesleak:
• **Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila** (HPS)
• **Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saila** (Euskara Zuzendaritza)

Diseinua eta maketazioa:
• **Nekane Akarregi / 11barri**

Inprimaketa:
• **Lizaso Grafikak / Zornotza**

**2014ko edizioa.**

# hitzaurrea

Idaztea gizonok eta andreok milaka urtetan garatu ditugun gaitasunetan konplexuenetakoa dela esan genezake. Santimamiñeko lezezuloan gure arbasoek haitzak lurrez tintatu zituztenean imajinatuko al zuketen geroak gure leinuari irekiko zizkion ahalbideak?

Haiek ez zuketen, ez, sekula imajinatuko euren lekukoa hartuko zenuketenik zuok, hitzaurre xume honekin omendu nahi zaituztegun idazle gazteok. Eurek bezala, zuen aztarna utziko zenuketenik, eta are gutxiago imajinatuko zuketen harria baino euskarri sofistikatuagoetan geratuko zenik, gerorako gordeta.

Hementxe gaude, ordea, **IDAZLAN KOADERNOEN XIII.** edizioari sarrera ematen. Agian, etorkizunean, *koaderno* hitza bazterrean geratuko zaigu, fosil bezala, hizkuntza bizitik desagertu ohi diren beste hitz asko legez. Izan ere, idazlanen bizia luzeago izango da, seguruenik, koadernoena baino. Eta hala bedi! Ezer desagertzekotan, desager dadila euskarria izendatzen duen hitza, teknologiak ziztu bizian garatuko baititu euskarri berriak eta eurentzako izenak, baina iraun dezala funtsezkoak, idazleak berak. Idaztea izan dadila *per seculam*, betirako, pertsonok egunero eragin dezakegun miraria.

Bitartean, jarrai dezagun liburu berrien usainez gozatzen, koadernoen azalak lagunen sinadurez eta bihotz-geziez apaintzen. Jarrai dezagun, baita, sormenak loretzen dituen idazlanok goraipatzen udaberriro. Eta hori hala izan dadin eragiten duzuen guztioi eskerrik beroenak ematen.

2014ko martxoan



Esperanza Uriarte Erdaide
*Euskara zinegotzia*

**aurkibidea**

# IDAZLAN KOADERNOAK 2014

## LHkoen IRAKURKETA EKITALDIA

2014ko APIRILAren 8-9an
• LIZEO ANTZOKIAN,
11:00etan




| IZENA | MAILA | IPUINA | orr. |
|---|---|---|---|
| Maialen Flores Arriaga | L.H. 1. | "Jonen urtebetetzea" | 7 |
| Mikel Ondarza Ruiz | L.H. 2. | "Erregeak datoz" | 9 |
| Naroa Sandia Provecho | L.H. 2. | "Lore magikoa" | 10 |
| Amaia Zubillaga Salces | L.H. 2. | "Zaldi galdua" | 12 |
| Melat Alzola Bilbao | L.H. 2. | "Ume bat txikitan" | 14 |
| Manex Jurado Bonilla | L.H. 2. | "Katalin basoan galduta" | 15 |
| Ager Uribe Iglesias | L.H. 2 | "Westerneko lapurrak" | 16 |
| Ibai Prieto Agirre | L.H. 2. | "Negu super txakurra" | 18 |
| Ixaka Arzanegi Basabe | L.H. 2. | "Ikastola magikoa" | 19 |
| Aimar Ordorika Basterretxea | L.H. 2. | "Ehiztaria eta erbi zuria" | 20 |
| Iraia Martin Matilla | L.H. 3. | "Jon eta Burrunba" | 21 |
| Kattalin Zelaia Ganboa | L.H. 3. | "Handitan txikia izan nahi dut" | 23 |
| Inhar Salegi Orbe | L.H. 3. | "Joanen abenturak" | 25 |
| Joseba Arrien Aspiazu | L.H. 4 | "Lautik bostera" | 27 |
| Andoni Garcia Beaskoetxea | L.H. 4. | "Pandaren bizitza" | 29 |
| Iraia Aranbarri Musatadi | L.H. 4. | "Itxasoko altxorra" | 32 |
| Izaro Gezuraga Lotina eta Enara Ondarza Ruiz | L.H. 4. | "Saskibaloiko taldea" | 34 |
| Jokin Agirre Urrutia | L.H. 4. | "Ninja dragoia" | 35 |
| Ekain Barandika Gomez | L.H. 4. | "Uhartea" | 37 |
| Iraitz Iturraran Fernandez | L.H. 4. | "Uholde arriskutsua" | 39 |
| Javi Santos Gandarias | L.H. 5. | "Ametsak eskolarako bidean" | 41 |
| Gotzon Asolo Uribe | L.H. 5. | "Jonen musika talde famatua" | 44 |
| Zuberoa Egurrola Arriaga | L.H. 5. | "Nire bizia" | 49 |
| Aitor Bilbao Landa | L.H. 5. | "Bahiketa" | |
| Itxaso Olea Urionabarrenetxea | L.H. 5. | "Katutxo beltza" | 52 |
| | | | 54 |
| Eneko Oleaga Goikolea | L.H. 6. | "Aitonari esker" | 57 |
| Lucia Aretxederreta Llor | L.H. 6. | "Ipuinean sartuta" | 60 |
| Naroa Artetxe Urgoitia | L.H. 6. | "Oztopoak" | 63 |
| Amaia Zarrabeitia Elorriaga | L.H. 6. | "Munduko jostailurik dibertigarriena dut" | 66 |
| Garikoitz Txurruka Foruria | L.H. 6. | "Aitonaren txalupa" | 69 |
| Nerea Vazquez Fernandez eta Irati Unzueta Cuende | L.H. 6. | "Ostadar zuria" | |



L.H. 1. maila

## Maialen Flores Arriaga

«Nire ahizparekin jolastea gustatzen zait»

# «Jonen urtebetetzea»

JONEN URTEBETETZEA

Jon oso pozik dago, gaur bere urtebetetzea delako. Sei urte egingo ditu.
Jonek badaki bere ospakizunean bere gelako lagun guztiak egongo direla.
Askaria jateko ordua da. Bat-batean txirrinaren doinua entzun du. Atea zabaldu duenean asko poztu da bere lagunek "zorionak" abestu diotenean.

Opari asko izan ditu: jolasak, margoak, irakurtzeko liburuak...; denak polit-politak.

Baina Jonori gehien gustatu zaiona, izeba Mirenek eta osaba Martinek emandako txakur txikia izan da; benetako txakurra!

Jonek badaki txakurra bere lagun onena izango dela betirako.

Jonek ez du ahaztuko inoiz bere seigarren urtebetetzea. Hain egun zoragarria izan da!

Maialen Flores Arriaga

6 urte







Mikel Ondarza Ruiz
«Musika eta dantza asko gustatzen zaizkit»

# «Erregeak datoz»

## ERREGEAK DATOZ



Behin batean, Eneko izeneko mutil bat bizi zen Gernikan. Mutil alaia eta azkarra zen, dantzari trebea ere. Eneko eta bere dantza taldeari Erregeen aurretik dantza egitea tokatu zitzaien.

Egunak joan eta egunak etorri, Errege eguna heldu zen. Arratsaldeko 5:30etan elkartu ziren eta hortik ordu erdira Erregeen aurretik dantza egitera joan ziren. Urduri zegoenez, dantza pauso bat ematerakoan oker irten zitzaion eta bat batean, gozoki baten kolpea sentitu zuen buru erdian. Hurrengo egunean bere zapatan opari pila ikustean, Eneko konturatu zen txiripaz izan zela, Baltasar ez zegoela berarekin haserre.

Mikel



L.H. 2. maila

## Naroa Sandia Provecho

«Lagunekin eta familiarekin bizikletan ibiltzea eta lagunekin jolastea gustatzen zait»

# «Lore magikoa»

## Lore Magikoa

Bazen behin zuhaitz batean bizi zen txoria.
Egun batean hegaz joan zen. Bat-batean haize bolada gogor bat hasi zenean jausi egin zen eta hego bat apurtu zuen. Gero ibiltzen hasi zen, nora joan jakin barik. Bidetik lore bategaz topatu zen.
Txoria negarrez hasi zen. Loreak, ikusi zuenean galdetu zion. -Zer gertatu zaizu?"
-Nire hegoa apurtu dut -erantzun zion Txoriak.
-Egon lasai, nik lagunduko zaitut -esan zion loreak.
Bere pétaloak ukitzen, argi handia emanez txoriaren hegoa osatu zuen. Lorea magikoa zen!
Txoria pozik jarri zen, bere hegoa ondo zegoelako, baina berriro triste jarri zen.
-Baina, zer gertatu zaizu? Galdetu zion berriro lore magikoak.
-Ez dakit nire etxera itzultzen esan zion txoriak.
Lorea bere petaloak mugitzen hasi zen eta ostadarra agertu zen. -Segi ostadarraren marra eta amaitzen denean, zure etxea topatuko duzu. -Esan zion loreak.







Amaia Zubillaga Salces

«Niri igeriketa eta dantza egitea gustatzen zait»

# «Zaldi galdua»

## ZALDI GALDUA

Bazen behin Jon izeneko baserritar bat. Arratzuko baserri handi eta zahar batean bizi zen.

Animalia mordoa zituen: zaldi bat, bi txerri, hamar oilo eta bederatzi ardi. Zaldiak Eguzki zuen izena. Marroi argia, oso garaia, polita eta isats luzeduna zen.

Jon egunero zaldian paseatzera joaten zen Arratzuko mendietatik zehar. Egun batean, gauez, animaliei janaria ematera kortara joan zenean, Eguzki ez zegoela konturatu zen.

-Non ote dago zaldia? galdetu zion bere buruari.



Basora joan zen ziztu bizian eta gau osoa bilatzen egon ondoren, azkenean mendi tontorrean aurkitu zuen.

-Berriro ez du ihesik egingo! - pentsatu zuen Jonek.

Handik aurrera, Kortan zegoenean, lotuta uzten zuen.

Gezurra ala egia? Sudurraren ondoan, begia.







# Melat Alzola Bilbao

«Gehien gustatzen zaidana da dantza egitea»

## «Ume bat txikitan»

"Ume bat txikitan"

Bazen behin ume bat Enerity deitzen zena Enerity Afrikan bizi zen. Baina orain Euskal Herrian bizi da. Bere familia Miren, Waldo eta Janek osatzen dute. Euskal Herrira ekarri zuten. Oso polita zela esan zion amak. Etxera heldu zenean bere nebak berarekin jolastu nahi zuen baina amak ez zion utzi. Halako batean eguna egin zenean bere neba berarekin jolasten hasi zen eta ondo pasatzen zuten. Gero bere lehengusua ere etortzen zen eta batera jolastu egin zuten. Azkenean handia egin zen. Eta orain zazpi urte dauzka eta bere nebak hamalau urte ditu. Hala bazan ez bazan gezurra dela ez niri esan.

Melat





Manex Jurado Bonilla
«Mendira joatea gustatzen zait»

# «Katalin basoan galduta»

KATALIN BASOAN GALDUTA

Bazen behin Katalin izeneko neska bat. Egun batean
hau esan zion amari:
- ama, basora noa egurraren bila. Amak esan zion...
- Kontuz Maiki!
- Baina, basoan zebilela, galdu egin zen. Ikaratuta
korrika hasi zen eta zuhaitz artean etxe bat ikusi
zuen. Etxeko atea jo zuen: - Tok, tok.
- Nor da?, esan zuen etxeko andreak.
- Katalin naiz eta galduta nago. Sartu naiteke zure



etxera? - galdetu zion. Bai, sartu, atea irekita dago,
- Kaixo, Maria dut izena esan zion andreak
Hemen geratuko zara bi egun, hurrengo egunean
amaren bila joan zen.



Ager Uribe Iglesias

«Niri gehien gustatzen zaidana lagunekin futbolera ta playmobilera jolastea da»

# «Westerneko lapurrak»

## WESTERNEKO LAPURRAK.

Bazen behin herriendko mendebaldeko batean hiru lapur eta sheriff bat. Sheriffa hiru lapurren bila zebilen. Hiru lapurrak hain azkarrak zirenez sheriffak ezin zituen harrapatu, harrapatzeko zuten 100000 dolarreko saria. Gau batean hiru lapurrak herriari eraso egin zioten baina sheriffa han zegoenez lapurrak ikusi bakoitzean gehienak atxilotu egin zituen baina lapur batek ihes egin zuen bere zaldiarekin. Biharamunean sheriffa lo zegoela libre zegoen lapurrak beste bi lapurrak kartzelatik atera zituen. Haiek azkenean erabaki zuten sheriffarentzat lan egitea. Hortik aurrera sheriffa eta hiru lapur zaharrak lagunak egin ziren. Hala bazan edo ez bazan agian dadila Barrutiko plazan!!!





L.H. 2. maila

Ibai Prieto Agirre
«Niri futbola asko gustatzen zait»

# «Negu supertxakurra»

NEGU SUPER TXAKURRA

Orain dela urte asko hiri handi batean txakur bat bizi zen. Txakurrak ez zuen jaberik eta kalean bizi izaten zen.




Egun batean kumeak izan zituen eta kume guztietatik bazegoen bat oso ausarta zena. Txakurrari Negu jarri zioten izena.
Denbora pasatu zen eta Negu txakur handia egin zen, oso indartsua eta inguruko jendeari laguntzea gustatzen zitzaion.

Aurreko jatetxe bateko jabeak egunero ematen zion jaten eta lagun handiak egin ziren. Gau batean, Negu jatetxearen inguruan lo zegoela

zarata batzuk entzun zituen. Hasieran pentsatu zuen jatetxeko jabea barruan lanean zegoela, baina halako batean ikusi zuen lapur bat zela.

Hurrengo egunean jatetxeko jabea heldu zenean, konturatu zen gauean lapurrak bere jatetxean ibili zirela. Negu txakurrari zapi bat usaintzeko eman zion eta Negu txakurrak inguruak aztertzen hasi zen.

Halako batean, plazan gizon bat usaindu zuen eta zaunka hasi zen, pertsona hori lapurra zen. Orduan poliziari esan zioten eta preso kartzelara eraman zuten lapurra.

Handik aurrera denak bizi izan ziren zoriontsu eta Negu txakurra super-heroia bihurtu zen.



Ixaka Arzanegi Basabe
«Futbola eta lagunekin jolastea atsegin dut»

# «Ikastola magikoa»

## Ikastola magikoa

Bazen behin herri txiki bat, non ez zegoen ikastolarik eta bertako umeak, beste herri bateko ikastolara joaten ziren autobusean. Umeak aspertuta, arratsalde baten bildu egin ziren herriko plazan eta ideia bat burura etorri zitzaien. Aitorrek beste umeei esan zien, esku batzeko eta desio bat pentsatzeko. Batzuek txokolatea desiratu zuten eta beste batzuek gozokiak desiratu zituzten. Bat batean txokolate eta gozokizko ikastola polit bat agertu zen. Aitor eta bere lagunak pozik eta barrezka jarri ziren. Ikastola berrian ipuinetako pertsonaiak zeuden: zuzendaria Peter Pan zen, idazkaria Edurnezuri, sorgina sukaldaria zen eta irakasleak printze eta printzesak ziren. Ume guztiak poz pozik joaten ziren ikastolara eta bertan egunero ipuin zoragarri bat ikasten zuten. Aitorrek eta bere lagunek egunero txokolate eta gozoki zati bat jaten zuten, ondorioz, ikastola oso azkar desagertu zen. Umeak oso triste geratu ziren, beraiek gogokoen zituzten gauzak galdu egin zituztelako. Bat batean Aitorrek ahots bat entzun zuen: Aitor, Aitor esnatu, ikastolara joan behar duzu! Amak deitu zion eta gure Aitor esnatu egin zen, gosaldu, jantzi eta ikastolarako bidean konturatu zen amets zoragarri bat izan zuela. Baina egun horretan irakasle berria heldu zen, Edurnezuri zuen izena eta gozoki pila batekin agertu zen. Gure Aitorrek oso pozik pasatu zuen eguna.


IKASTOLA
AUTOBUSA



Aimar Ordorika Basterretxea

«Nagusitan kiroldenda bat edukitzea nahi nuke"

# «Ehiztaria eta erbi zuria»

## EHIZTARIA ETA ERBI ZURIA

Bazen behin mendiko etxola zahar batean bizi zen ehiztari behartsu bat.

Goiz batean, ehizan irten zuen eta erbi zuri bat ikusi zuen. Tiroa bota zion baina huts egin zuen. Tiroak zuhaitz zahar batean zuloa egin zuen eta ehiztaria hurbildu zenean mapa bat aurkitu zuen. Mapa zabaldu zuen eta bertan erbi zuriaren habia non zegoen X letraz jartzen zen.

Hara iritsi zenean,
erbia lo zegoen.
Apuntatu eta tiroa egiteko prest zegoenean esnatu egin zen eta esan zion:



- Ehiztari jauna,
mapa zahar horretan benetako altxorra non dagoen jartzen du eta aurkitzeko nire laguntza behar duzu.
- Ongi da, baina adarra joten badidazu berehala akabatuko zaitut.

Halako batean, lagako hondartzara iritsi ziren eta erbi zuriak esan zion:
- Marea jaitsi arte itxaron beharra daukagu.

Marea jaitsi zenean, arkaitz artean, kobazulo txiki bat agertu zen. Barrura sartu eta altxor eder bat aurkitu zuten.
- Nahi duzu nirekin bizi? - esan zion ehiztariak.
- Bai, pozik gainera.

Mendian txabola bat egin zuten eta orain bertan zoriontsu bizi dira.



Aimar
L.H.1



Iraia Martin Matilla
«Irakurtzea eta igeriketa egitea gustuko dodaz»

# «Jon eta Burrunba»

## JON ETA BURRUNBA

Egun eguzkitsu batean, astotxo dotore-dotorea kaletatik zebilen bakar-bakarrik. Burrunba deitzen zioten. Ile beltz-beltza eta leun-leuna zuen. Bere hankak fin-finak ziren eta zuzen-zuzen zebilen. Egunero, musika dendako erakusleihoaren aurrean, makinatxo bat minutu egiten zituen musika entzuten. Do-do... Entzuten zuen guztia abestu egiten zuen eta!



Gainera, oso alaia izateaz gain, atsegina zen, denei laguntzen zielako.

-Hura bai zela astotxoa!

Eguerdiko hamabiak aldera, Burrunba, beste asto batzuekin batera, basorantz abiatu zen. Basoan astoak arrantzaka hasi zirenean, Burrunba sasitzan ezkutatu egin zen eta abesten hasi zen kalean ikasitakoa. Inork ez zekien abeslaria zenik. Orduan, sasitzatik abesti hau entzun zen!

Do, do, do asto eta mando.
Re, re, re arre eta arre.
Mi, mi, mi gosea ase ezin.
Fa, fa, fa lasto eta alfalfa.
Sol, sol, sol artotan bi eskol.
La, la, la beteta daudela.
Si, si, si arrantzaka hasi.
Do, do, do asto eta mando.



Bat-batean, Jon txiki, Peru artzainaren artaldea zaintzen zegoen mutila, aho zabalik geratu zen, astoak arrantza egin beharrean, abestu egiten zuela ikusi zuenean. Jontxu beldurtu egin zen eta Burrunbak zera esan zion:

-Ez zaitez beldurtu! Arrantza egin beharrean abestu egiten dut eta! Gainera, inork ez daki abesten dakidanik.

-Ez, ez dut ezer esango baina ... mesedetxoa egin beharko didazu - esan zion Jonek.

-Bai! Esan, esan ...! Erantzun zion Burrunbak.

-Ardiak, artaldetik ihes egiten dutenean, abestu eta taldera bueltatuko dira, musikak lasaitu egiten ditu eta.



-Hori eginda dago! Pozarren abestuko dut!

Azkenean, ardiak lasai-lasai zeuden artaldean eta pozarren bizi ziren elkarrekin. Aurrerantzean, Burrunba eta Jontxu lagun minak eta abeslari ospetsuak ziren.

Iraia Martin



**Kattalin Zelaia Ganboa**

«Niri lagunekin egotea eta irakurtzea gustatzen zait»

# «Handitan txikia izan nahi dut»

## Handitan txikia izan nahi dut

Bazen behin ume bat. Ume horrek ez zekien zer izan handitan. Gauza asko probatu zituen: ileapaintzailea, dendari, sukaldari. Baina bat ere ez zitzaion gustatu. Ileapaintzailea bazen, zapatuetan ere lan egin beharko zuen. Sukaldaria bazen, asteburu batzuetan ere lan egin beharko zuen eta bere amari galdetu zion. Bere amak ere ez zekien eta aitari galdetu zion. Aitak ere berdin. Azkenean familiguztiari galdetu zien, baina besteek ere berdin ez zekitela zer. Buruari bueltak eta bueltak ematen zebilen baina ez zitzaion ezer bururatu –Ah!!! Ze aspergarria –esan zuen umeak.



-Zer egingo dot ez bazait ezer buruvatzen?-

-Zer izango naiz handitan?-esan zuen berriro ere.

-Badakit zer izan, ghiltzailea!!! Ez, Ez, Ez!!! bestela suaren ondoan egon beharko dot.-Esan zuen umeak. Eta bere lagunei galdetu zien, eta bere lagunek ez zekitela esan zioten.

Burua zorabiatzeko momentuan esan zuen. Badakit!!!

-Handitan txikia izango naiz!!!-esan zuen umeak poz-pozik.

Eta hala bazan edo ez bazan sar dadila kalabazan eta irten dadila Natitukoplazan.





Inhar Salegi Orbe
«Irakurtzea asko gustatzen zait,
Geronimo Stiltonen liburuak batez ere»

# «Joanen abenturak»

JOANEN ABENTURAK

Joan 9 urteko mutil koxkorra da, bere gurasook famatuak dira arkeologian, eta Joanen ametsa: Amazonako oihanera joatea zen. Behin bere gurasoen urpekarian saiatu zen joaten, baina, gurasoek harrapatu egin zuten eta zigortu ere bai. 17 urterekin gurasook hil egin zitzaizkion eta Joan triste geratu zen. Egun batzuk geroago, Joanek pentsatu zuen bere txikitako ametsa betetzea. Urpekaria hartu eta han abiatu zen Amazonasko oihanerantz, heldu zenean, pila bat gauza ikusi zituen: zuhaitzak, txoriak, tribuak... Baina, gehien gustatu zitzaiona, Anakonda sugea izan zen, 7 m-ko suge



erraldoia, haragijalea eta arriskutsua. Ondoren, oihanean barrurantz sartu zen, hasieran, beldurra eman zion, baina gero ziurtasuna hartzen joan zen. Oihanaren barru-barruan



zegoela, bat-baten eskuek eta hankek pika egiten zieten, konturatu zenean zer zen korrika alde egin zuen leku hartatik.

Geroago ibai batera iritsi zen eta ur apur bat edan zuen, indarrak berriz buetatu zitzaizkionean bere bideari ekin zion. Minutu batzuk pasatu ostean zubi zahar batera iritsi zen, beldurra bat-batean etorri zitzaion, zubi horrek 50 urte zeramatzan hor eta apurtzeko arriskua zuen. Zubiaren beste aldera iritsi zenean,, gosea sartu zitzaion eta geldialdi bat egin zuen. Jaten amaitu zuenean itsasertzerantz abiatu zen etxera bueltatzeko. FIN!



Joseba Arrien Aspiazu

«Gehien gustatzen zaidana irakurtzea da»

# «Lautik bostera»

## LAUTIK BOSTERA

Baziren behin lau animali ohian batean bizi zirenak. Lauretako bat Marituxu deitzen zen marigorringoa zelako, bestea Minio tximinoa eta beste biak Datza panda hartza eta Lino lehoia.
Egun batean lurrikara oso indartsua egon zen eta ohiana suntsituta geldituz zen. Lau lagunen etxeak desagertu egin ziren. Linok arazoa konpontzeko ideia bat izan zuen, beste ohian batera joatea. Horretarako denak ados egon behar ziren. Zailena Kobazulo erraldoia zeharkatu behar zutela zen baina denak batera erraz lortuko zutela esan zuen Linok.

Kobazuloan xagu bat bizi zen eta bart-zen hasi zirenean gelditzeko agindu zien. Xagua bakarrik bizi zen Kobazu-loan. Bere familia hilda zegoen. Oso jakintsua eta ona zen baina triste bizi zen bakar-bakarrik. Kobazuloa zeharkatzeko froga batzuk egin beharko zituztela esan zien xaguak lau lagunei. Lehen froga asmakizun bat zen.

gorri-garri
ttiki-ttiki
zer naiz ni?
Marigorringoak esan zuen:
– marigorringo, marigorringo da erantzuna!

Hirugarren froga galdera bat zen:
- Zein da bambua jaten duen animalia?
Panda hartzak esan zuen bere indar guztiaz!
- Panda hartza da!

Laugarren frogan xaguak eskatu zien urte asko barre egin barik zegoela eta horregaitik bera barre egitaraztea izango zela froga.
Lau lagunak batu ziren pentsatzeko zer egin eta Lino lehoiak proposatu zuen dantza bat egitea. Denak ados zeuden baina ze dantza egingo zuten pentsatu behar zuten. Barregarria izateko aurreskua dantzatzea erabaki zuten. Laurak xaguaren aurrean ipini eta txistua jaten zuten bitartean Lino lehoia dantzan hasi zen. Xaguak ez zuen barrerik egiten, ez zelako barregarria, baina Lino azkeneko momentuan estropezu egin eta jausi egin zen. Orduan xaguak barre egin zuen, barre itzelak bota zituen. Horrela lortu zuten xaguaren baimena kolazuloa zeharkatzeko.

Kolazulotik irtetzera joan zirenean Linok atzera begiratu zuen eta xagua negarrez ikusi zuen. Orduan galdetu zion ea beraiekin joan nahi zuen Ohian berrira eta xaguak baietz esan zuen.
Denak batera joan ziren beraien etxe berrira.







Joseba Irurien Aspiazu



Andoni Garcia Beaskoetxea
«Animaliak gustatzen zaizkit»

# «Pandaren bizitza»

## PANDAREN BIZITZA

Bazen behin panda txiki eta polit bat. Panda hori Bolita deitzen zen. Bolita bakarrik bizi zen. Egun batean zooko pertsonak aurkitu zuten eta eraman egin zuten. Bolita beldurturik zegoen hasieran. Eta gero Bolita pozik jarri zen panda pilo aurkitu zituelako bertan.

Gehien janari ordua gustatzen zitzaion. Lagunak egiten zituen. Bolita oso alaia zen. Zooan bazeuden animali desberdin asko eta denok ziren gure pandaren lagunak. Bolita gustoko zituen asteburuak. Egun horretan ume pilo joaten ziren Bolita ikustera. Oso famatua zen ume guztien artean. Umeekin argazkiak ateratzen ibiltzen zen ia egun osoan horrela umeak opari batekin joaten ziren etxera. Bolitari asko gustatzen zitzaion lagunekin eta umeekin jolastea. Bere jolas hoberena pila-pila zen. Bolita oso pozik bizi zen. Laster nire urteak dira eta Bolitarenak ere. Argazki bat nahi dut Bolitarena eta horrela nire lagunei erakutsi ahal izango diet.

Argazkian oso dotore agertu gara. Biok Bolita bambua jaten eta ni izozki handi bat. Egun hori berezia izan zen. Zooko animaliek antzerki bat prestatu zuten, magia eta guzti. Euren trukua Bolita desagertzea zen eta gero nire ondoan eserita agertzea. Momentu horretan atera zuen argazkia nire anaiak. Bai polita!! Orain nire logelan daukat horman jarrita. Asko gustatzen zaizkit animaliak eta nire animaliarik kuttunena panda da. Nola ez!



L.H. 4. maila



## Iraia Aranbarri Musatadi

«Niri gehien gustatzen zaidana da igeri egitea eta lagunekin egotea»

# «Itxasoko altxorra»

## ITXASOKO ALTXORRA

Bazen behin herri txiki batean ikastetxe bat; Eskola horretan ume gutxik ikasten zuten, herria txikia zelako. Egun batean 4.mailakoak irteera bat egin zuten itxasontzi erraldoi batera. Itxasontzi horrek sukaldea, bi logela, egongela eta komunak zituen eta diskoteka bat ere bai.

Gauean diskotekara joan ziren ikasle guztiak eta txartel bat aurkitu zuten paretean itsa-tsita. Irakurri zuten eta honela zioen...

"Itxasoan altxor bat aurkitu dezakezue. Koba zulo txiki batean dago eta barruan Port Aventurarako sarrerak ditu. Ahaztu barik diru kopuru bat badago". Ikasleek plana prestatu zuten. Gauean denak logela batean elkartuko ziren eta denak batera joango zirela altxorraren bila. Irakaslea ohartu gabe.

Gaua heldu zen eta ikasle guztiak beraien bainujantziak, neoprenoak eta gafak jarri eta denak uretara abiatu ziren.

Ikasle batek kobazuloa ikusi zuen eta Konturatu zen altxor bat zegoela barruan. Baina han marrazo bat bizi zen Kobazulo barruan, lo zegoena. Ikasle bat oso ausarta, Ane izenekoa, kobazulora abiatu zen eta altxorra hartu zuen ziztu bizian. Ia, ia marrazoa esnatu zen baina azkenean lortu zuen. Udako oporretan denak joan ziren Port Aventurara txangoan. 4. mailako esperientzia izugarria izan zen.







Izaro Gezuraga Lotina
eta Enara Ondarza Ruiz

(IZARO) «Niri gehien gustatzen zaidan kirola saskibaloia da»
(ENARA) «Handitan matematikako andereñoa izan nahi dut»

# «Saskibaloiko taldea»

## SASKIBALOIKO TALDEA

Laugarren mailan geundenean, Allende Salazar saskiko taldekoak trapelketaren finalera heldu ginen. Zornotzako taldearen aurka jolastu behar genuen eta 13 ok gunden oso-oso urduri eta astoratuta, gogor entrenatu genuen egun horretarako.
Beti bezala, autobus geltokian geratu giren. Autobusa etorri zenean gidariak aurpegi txarra zuen baina ez giren arduratu. Bidaia erdia eginda genuenean, gidariak autobusa gelditu zuen min handia zuelako burun. Ez geneukan termometrorik baina bekokia ikutuz sukarra zuela argi zegoen. Bat batean konortea galdu eta autobuseko pasabidera ziplo erori zen.
Zelako ikara hartu genuen!
Zortez gutariko batek mobila zuen eta anbulantziari deitu zion. Zoritxarrez, anbulantzia guztiak okupatuta zeuden eta ordu erdiko atzerapenarekin helduko zela esan ziguten. Zerbait egin behar genuen!
Orduan, Judith, gure entrenatzaileak, esan zuen bere aitak autobusa gidatzen zekiela, eta bera saiatuko zela



gure gidaria ospitalera eramaten, eta gero Zornotzako partidura. Baina gok psssss..! bat entzun genuen eta Juditheri jaisteko baimena eskatu genion eta berak baietz esan zigun. Ene! Atzeko gurpila zulatuta zegoen! Hau hondamena!
Segituan lanean hasi ginen:
Hiruk traleko isladatzaileak jarri eta arriskuko seinalea jarri zuten errepidean, beste bik ordezko gurpila ateratzen afanatu ziren, beste batek telefonoz gurpila aldatzeko argibideak jasotzen zituen bitartean. Zer esanik ez, gidaria zaintzen ere bazeuden hiru-lau pertsona.
Nahiz eta gogor egon eta erraza ez izan, oso denbora gutxitan lortu genuen gurpila aldatzea. Gidariaren familiari abisatu eta ospitalera eraman genuen presaka. Ospitalekoak esan zigun ez zela ezer larririk jende askori gertatzen zaiola. Denborarik galdu gabe Zornotzarantz abiatu ginen.
Heltzerakoan jendea zain zegoela ikusi genuen. Berandu heldu ginenez, beroketak egiteko oso denbora gutxi izan genuen.
Partidua berandu hasi zen eta arbitroa beraien alde zegoen, batez ere hasieran. Gu ere apur bat lekuz kanpo geunden. Beraz, lehenengo zatian galtzen joan ginen, hamar puntutik. Atsedenaldian, Judithek oso ondo azaldu zigun nola jokatu behar genuen. Orduan, bigarren zatian gogor defendatu genuen eta markagailuari buelta eman genion.

Momentu horretan, gure jokalari batek min hartu zuen
Baina bere ordez atera zenak itzel jolastu zuen,
puntu asko sartuz. Azkenean garaipena lortu genuen.
Denon artean agurtu giren eta berehala zaurituta
ikusten joan giren. Zorionez ez zen ezer larria eta
garaipena pozik ospatzeko prest geunden denok. Ospakizunerako
jatetxe batera joan giren guztiok.
Egun horretakoa bai abentura!
Baina partidua irabaztea baino, garrantzitsuagoa izan
zen elkarrekin lan egitea eta elkar zaintzea.





Jokin Agirre Urrutia

«Niri lagunekin futbolera jolastea gustatzen zait
eta nintendora jolastea ere bai»

# «Ninja dragoia»

## NINJA DRAGOIA

Bazen behin, duela 5.000 urte, mutil bat, Alex deitzen zena eta ninja bat izan nahi zuena. Urte batzuk pasatu zirenean, Alexek herriko tenplura joatea pentsatu zuen eta hala izan zen. Tenplura heldu zenean, laster batean pertsona bat ikusi zuen, harri handi baten gainean eserita. Alex hurbiltzen hasi zen eta azkenean aurpegia ikusi zion eta esan zuen Alexek:

- Zu ez al zara munduko ninjarik onena, Miwhes gizaki hontza garaitu zuena?

Eta Alexek berriro esan zuen:

- Ahal nauzu entrenatu zure antzekoa izateko?

Miwhesek buruarekin baiezko keinua egin zuen. Hurrengo egunean, Alex entrenatzen hasi zen tenpluaren barruan. Tresna arraro bat atera zuen Miwhesek bere ganbaratik eta esan zuen:

- Tresna hau zure kolpeak eta defentsa hobetzeko da.

Entrenatzen jarraitu zuen gau eta egun. Baina egun batean Miwhes hil egin zen eta Alex buruzagi bihurtu zen. Halako batean, zezen handi bat agertu zen Alexi erregetza kentzeko eta borrokan hasi ziren biak. Alexek Miwhesen kolpeak gogoratu zituen. Bat-batean, Alex dragoi bihurtu zen. Zezenak dragoia ikusi zuenean ihes egin zuen eta aurrerantzean Alex munduko ninjarik onena izan zen.



L.H. 4. maila



## Ekain Barandika Gomez

«Futbolera jolastea eta irakurtzea gustatzen zait»

# «Uhartea»

## UHARTEA

Orain dela urte asko, XV. mendearen inguruan, Jon izeneko pirata bat bizi zen. Nahiko altua zen, ia-ia bi metro zituen. Bizar luze bat zuen, hanketaraino heltzen zitzaion. Ez zuen eskumako begirik ez ezkerreko hankarik, borroka batean galdu zituen eta. Bere ezpata oso luzea zen, metro batekoa zen, gutxi-gorabehera. Jon pirata tripulazio baten kapitaina zen. Itsasontzi batean bizi zen. Baina itsasontzi hura ez zen besteak bezalakoa. Burdinezkoa zen. Hiru mastil zituen, bat laurogei metrokoa eta beste biak hirurogei metrokoak. Lau pisu zituen. Bi bodegak eta beste bi logelak ziren. Tripulazioa mila piratez osatuta zegoen. Honela banandua zeuden: bostehun pirata itsasontzia defendatzeko ziren, hirurehun sukaldariak ziren eta berrehun begiraleak ziren. Ez zuten borroka bat ere ez galdu. Horregatik, Jon eta bere tripulazioa munduko ospetsuena zen.

Egun batean, Jon lotan zegoela, zerbaitek aurpegia busti zion. Orduan, esnatu egin zen. Baina, begiak zabaldu eta uharte batean zegoela konturatu zen. Ez zegoen inor. Oso kezkatuta zegoen. Zer egiten zuen han? Bere tripulazioak eraman zuen hara eta gero abandonatu zuten? Hala nola, zarataka hasi zen, ea entzuten zuten. Baina ez. Ez zuten entzun.

Orduan, uhartearen inguruan bueltaka hasi zen, norbait topatzeko asmoz. Baina han ez zegoen inor. Nekatuta zegoelez palmondo baten itzalean eseri zen deskantsatzera. Bost minutu beranduago, koko bat erori zitzaion buruan. Orduan, ohetik erori zela konturatu zen, baina bere itsasontzian zegoen, bere tripulazioaz inguratuta. Dena amets bat izan zen!



Ekain Barandika



Iraitz Iturraran Fernandez
«Aupa gu eta gutarrak!»

# «Uhold̲e arriskutsua»

## UHOLDE ARRISKUTSUA

Orain dela milaka urte tribu handi bat kobazulo batean bizi zen. Tribua basoan zegoen suaren inguruan eskuak berotzen. Gorputzez handiak ziren. Armaiak ile horia zuen, bihotz onekoa zen eta 6 urte zituen. Angel basoan asko zebilen eta tribuko nagusiena zen. Pilik adarra jotzen zuen eta jakintsuena zen. Enekok ile beltza zuen eta beti zebilen lan eta lan. Ane tribuko ama zen. etxea zaintzen zuen eta tribu osoa oso zoriontsua zen. Eta egunak joan eta egunak etorri, egun askotan zehar eta gelditu barik egon zen euria egiten. Hasieran sirimiria zena, gero txingorra eta ekaitza bilakatu zen. Pilik arriskua ikusita, adarra jo zuen gogor-gogor. Orduan Ane konturatu zen zerbait gertatzen



-Herria arriskuan dago! Uholdeak ditugu gainean eta Oiz menditik lur-jausia egoteko arriskua dago!

-Ez badugu ezer egiten herria eta basoa suntsituta geratuko dira! -esan zuen Angelek.

-Ideia bat daukat! Zer deritzozue horma handi bat egingo bagenu goian zulo batekin? esan zuen Enekok bat batean.

-Sekulako ideia eduki duzu! Goazen lehenbait lehen hastera!



Herritar guztiak batu ondoren guztien laguntza beharrezkoa zela konturatu zen. Eta zalantza barik, tribu guztia egon zen prest laguntzarako. Esan eta egin. tribu erdia harriak batzen hasi zen eta beste erdia pilatzen. Azkenean dena ondo atera zen. taldean lan egin zuten eta inori ez zitzaion ezer ere ez gertatu. Ospatzeko jai eraldoi bat egitea pentsatu zuten. Urrrra!!!



L.H. 5. maila

Javi Santos Gandarias

«Nire kirolik gogokoena futbola da»

# «Ametsak eskolarako bidean»

AMETSAK ESKOLARAKO BIDEAN

Behin batean eskolarako bidean zerbait entzun nuen eta
belar artean argi bat ikusi nuen, baina ez argi arrunt bat,
argi berezi bat, kolore askotakoa eta oso polita.
Geroxeago begiak ireki eta gartzela baten nengoela konturatu
nintzen eta hauxe entzun nuen:

-Noiz helduko gara DZ6 plataformara?

-Uste dut arin helduko garela gure espaziontzian.

Nire ustetan 2 estralurtar hitz egiten zeuden eta orduan
konturatu nintzen espaziontzi barruan nengoela.
Oso ikaratuta nengoen eta orduan estralurtar bat
hurbildu zitzaidan ezer esan gabe eta esposa arraro
batzuekin eskuak lotu zizkidan. Gero haien herrira
eraman ninduten eta bidean beste estralurtar
asko ikusi nituen, oso
motzak ziren eta begi
txarrez begiratzen ninduten.
Azkenean oktogono forma
zeukan eraikuntza batean
sartu ginen. Barruan argi
guztiak urdinak ziren eta
aulki baten jesarrita zegoen



estralurtar batengana eraman nindüten:

-Begira zer aurkitu dugun!

-Lur planetako mutila da, 10 urte gutxi gorabehera edukiko ditu. Bidali ikerketa gelara, analisiak egingo dizkiogu eta. Gero bere burmuina aztertuko diogu zer dagoen pentsatzen eta nola kontrolatzen duen bere gorputza jakiteko.

Laborategi bateko arratoi bat moduan sentitu nintzen.

Plater bat gozokiz beteta eman zidaten jateko, baina erabat ikaratuta nengoenez estralurtarra ikusiaz, buruan kasko berezi jarri zidatenean garrasika hasi nintzen:

-Nire etxera nahi dut joan! Ahhhhh!!!..



Orduan, nire garrasiarekin esnatu egin nintzen, eta musika ezagun bat entzun nuen, Iñakik nire eskolako atezainak egunero goizetan ipintzen duena.

Nire eskolako betiko bidean nengoen zorionez, eta ez beste planeta batean.

Egia esan, nire eskolako bidean ez da orokorrean ezer arrarorik gertatzen, baina kontuz ibili behar naiz kaleak zeharkatzen ditudanean eta listo ibili sasoiz heltzeko.

Eskolara heltzen naizenean pozik egoten naiz nire lagunekin eta asko gustatzen zaizkit Iñakik jartzen dituen abestiak.



L.H. 5. maila

Gotzon Asolo Uribe

«Lagunekin momentuaz gozatzea
eta irrifartsu bizitzea gustatzen zait»

# «Jonen musika talde famatua»

## Jonen musika talde famatua

Bazen behin, Jon izeneko mutiko lasai bat. Zortzi urte zituen. Ilea marroia zuen, zuhaitz enborraren modukoa. Bere ametsa Gatibu taldea bezalako musika talde bat sortzea zen txikitatik. Ikasgelan, ez zen oso adi egoten, kantak sortzen zegoelako. Gainera, etxerako lanak musika entzuten egiteko gai zen. Bere zaletasuna musika zen baina abestea ez zuen hain gustuko.

Jonek hiru lagun zituen buruan taldea sortzeko: Patxi, Gaizka eta Urko. Egun batean elkarrekin zeudela, zera esan zien:

- Gustatuko litzaizueke nirekin musika talde bat sortzea?

Denek erantzun zuten baietz, baina taldea sortzeko ez zuten instrumenturik. Orduan, zer egin daitekeen pentsatzen hasi ziren. Gaua egiten ari zen eta denak pentsakor joan ziren etxera.

Hurrengo egunean, lau mutilak agertu ziren ideiekin eta ikastetxean pozaren-pozez saltoka hasi ziren, ideia ezin hobea aukeratu zutelako. Ideia hori Urkorena zen.

Ideia, ikastetxeko zuzendariari musika gelako instrumentuak eskatzea zen, eta berak baietza emanez gero, kaletik zehar musika jotzen joatea zen. Horrela, bigarren eskuko instrumentuak erosteko aukera izango zuten.

Laurak batera, zuzendariarengana hurbildu, zera galdetu zioten:

-Barkatu zuzendaria, har ditzakegu musika gelako instrumentu batzuk, mesedez?- horrekin batera, zer asmo zuten azaldu zioten. Zuzendariak orduan, ez zuen ezezkorik eman izugarrizko ideia iruditu zitzaiolako.



Mutilak pozez zoraturik
musika gelara abiatu ziren.
Musika gelan, Jonek hau esan zien
bere lagunei:
-Patxi, taldeko abeslaria izango zaitezke,
inork baino hobeto abesten duzu eta;
Gaizka, zuk bateria jo dezakezu? Oso errit-
mo ona duzu; Urko, zuk eta nik gitarra bana jo dezakegu? Zer uste duzue?

Denek baietza adieraziz, kantak birpasatzen hasi ziren. Hamaikatxo bider birpasatu ostean, kalera irten eta famatuak egin ziren. Gainera, behar beste diru lortu zuten. Arrakasta izugarria izaten ari zirenez, taldearen izen bat pentsatu zuten: "Lau gara".

Goiz batean, Jonek irratia piztu eta bere taldeko abesti bat entzun zuen. Orduan, Jon zoriontsu bizi zen bere ametsa bete zelako.

(Gotzon)



L.H. 5. maila



## Zuberoa Egurrola Arriaga

«Niri saskibaloian jokatzea eta arraunean egitea gustatzen zait»

# «Nire bizia»

Nire bizia

Kaixo, nire izena Vanesa da. Buenos Airesen bizi naiz eta 15 urte ditut. 15 urte hauetan oso gauza arraroak gertatu zaizkit. Orain nire bizia kontatuko dizuet.
Ni Pekinen jaio nintzen, Pekineko familietako pobrearen batean. Jaio eta segituan ume-etxera eraman ninduten baina segituan adoptatu ninduten Marruecosera eramanez.
Nire familia beraiarekin oso pozik egoten nintzen. Bertako elizetan kantatzen nuen eta esaten zidaten oso ahots polita neukala. Nire aitak bakarrik egiten zuen lan. Ez nintzen alaba bakarra, sei neba eta lau ahizpa nituen. Nire familiak ez zuen diru askorik orduan ezin zigun mantendu. Familia horretara heltzen azkena ni izan nintzen eta orduan ni joan behar izan nintzen berriz ume-etxera. Nire ahizpak ez zuten nahi ni etxetik joatea ni nintzelako familitik txikiena. Nahiago zuten mutil bat joatea. Ama eta aita ohartu jabetu gabe anai nagusienak ume-etxera aldegin

zuen ez zuelako familia horretan segitu nahi. Ama eta aita jaberi ordeko anaia ume-etxean adoptatu zuten. Beragatik izango ez balitz, ni izango nintzen ume-etxean egongo litzatekeena.

Nahiz eta nire anaiak etxea utzi, nire amak eta aitak ez zeukaten gu mantentzeko baliabiderik. Beraz ume-etxera joateko hurrengoa ni nintzen. Ume etxean urte bat egon nintzen. Behin andere bat bisitan etorri zen eta ni gaixorik nengoen.



Ni zortzi urterekin

Pena eman eta adoptatu egin ninduen.

Oraingoan adoptatu nindutenean zortzi urte nituen eta Euskal Herrira eraman ninduten. Bertan ikasi nituen euskara eta erdara. Nik etxeko bi umeekin jolasten nuen. Orduan 3 alaba ginen. Eramaten ninduten eskolan Chinako ume asko zeuden, nik betirako familia horretan gelditzea desio nuen.

Nire ahizpak, Jorek eta Arratek, 4 eta 12 urte zituzten eta aitarik ez zeukaten. Nire amak mutil-lagun bat aurkitu zuen.

Egun batean txango bat egitera joan eta kotxean gindoazela,

istripu bat euki genuen. Istripu haretan nire ama eta nire ahizpak hil egin ziren eta umezurtz gelditu nintzen. Familia gehiagorik ez neukanez berriz ume-etxera eraman ninduten. Ume-etxean bi hilabete egon nintzen. Egun batean Argentinako gizon aberats baten idazkaria etorri zen haur bat adoptatzeko. Azkenean ni adoptatu ninduten. Argentinara oso-pozik joan nintzen. Lagun berriak egin nituen. Sortea euki nuen erdara nekiela. Nire aita orde berria oso ona zen eta asko maite ninduen. Argentinako etxea aurreko etxe dena baina handiagoa zen. Zerbitzariak nituen, janari asko nuen, oso pozik egon nintzen. Oraindik Argentinan bizi naiz, baina orain Estatu Batuetan nago telebistako serie batean lanean. Oso pozik nago nire lanarekin. Hala baran hala ez baran bi begin artean sudurra.

Naiz eta nire bizia gogorra izan hau da nire bizia!!!





L.H. 5. maila

## Aitor Bilbao Landa

«Lagunekin jolastea eta irakurtzea gustatzen zait»

# «Bahiketa»

# BAHIKETA

8720. urtean Big-Bang eskolan zen, ikasturteko lehenengo eguna zen. Eguzkitxo eta Lurtxo eskolan berriak ziren, urduri zeuden.
Elkarren ondoan jesarri ziren eta Eguzkitxok Lurtxori galdetu zion:
–Aizu, zein eskolatan ikasten zenuen?
–Lehen Espaziozale Ikastetxean ikasten nuen –erantzun zion Lurtxok.
Bapatean irakaslea sartu zen:
–Egun on denoi Jon Andoni deitzen naiz eta zuen tutorea izango naiz; gure unibertsoko historia irakatsiko dizuet baita ere. Ikasle berriak baldin badaude, altxa zaitezte.
Eguzkitxo eta Lurtxo altxatu ziren. Jon Andonik esan zien:
–Orain etorri, aurkeztu zuen buruak ikaskideen aurrean.
–Ni Eguzkitxo deitzen naiz, Eguzkiaren semea naiz eta nire aita itzaltzen denean bera ordezkatuko dut, horregatik asko ikasi beharra daukat.
–Ni Lurtxo deitzen naiz eta handitan planeta eder eta urdin bat izan nahi dut.
–Oso ondo! –esan zien Jon Andonik– Gaurko klasearekin hasiko gara.
Lehen klasean unibertsoaren sorrerari buruz hizketan aritu ziren txirrinak jo arte.



Jolasordúan denek Eguzkitxo eta Lurtxorekin nahi zuten jolastu.
Futbolean jolastu zuten. Lurtxok Eguzkitxori belarrira esan zion:
-Goazen korrika hemendik.
Korrika irten ziren eta momentu batez Eguzkitxok pentsatu zuen zerura begira:
"Asko ikasten badut hor egongo naiz laster"
Bapatean norbaitekin topo egin zuten eta biek batera esan zuten:
-Barkatu!
Ezezagunak eramatako liburuak jaso eta desagertu egin zen. Handik gutxira txirrinak jo zuen berriz eta bakoitza bere gelara joan zen.
Matematika klasean orgi-urtea zer zen ikasi zuten eta arketa batzuk egin ondoren, bazkaltzera joan ziren.
Jolasorduko ezezaguna ikusi zuten eta zaku batean sartu zituen ustekabean.
Arratsean Jon Andoni tutorea konturatu zen ikasle berriak falta zirela baina ez zion garrantziarik eman.
Gauean Eguzkiari mezu bat iritsi zitzaion.

> Zure seme Eguzkitxo berriro ikusi nahi baduzu Pluton planeta izendatu beharko duzu. Espazial jatetxean 12:00etan itxaroten zaitut.

Eguzkia konturatu zen Plutonek idatzi zuela mezua eta berak zituela Eguzkitxo eta Lurtxo.
Gaueko 12:00ak ziren eta Pluton Eguzkiari itxaroten zegoen, Espazial jatetxean.

Eguzkia sartu zen jatetxera eta Plutonen ondoan jesarri zen.
-Ez zaitut planeta izendatuko!
-Orduan ez dituzu zure semea eta laguna ikusiko -Plutonek
-Aizu, trato bat egingo dugu ez zaitut planeta izendatuko baina famatu egingo zaitut.




-Nola? -Plutonek harrituta
-Star Wars IX filma grabatuko dute eta aktore bila dabiltza. Zuzendaria nire laguna da eta berarekin hitzegingo dut zu filman agertzeko.
-Primeran! Adoz!
Nire etxean daude zure semea eta bere laguna, oraintxe askatuko ditut.

Handik egun batzuetara Star Wars IX filma estreinatu zuten, arrakasta izugarria izan zuen. Pluton aldizkari guztietan azaldu zen eta telebistan elkarrizketak egin zizkioten. Oso zoriontsu zen Pluton, planeta izatearena ahaztu zuen.
Lurtxok eta Eguzkitxok bahiketa barkatu zioten Plutoni eta ikastuntzearekin jarraitu zuten.



Itxaso Olea Urionabarrenetxea
«Igeriketa egitea asko gustatzen zait»

# «Katutxo beltza»

## Katutxo Beltza

Beltxi dut izena, parkean bizi naiz beste Katutxo guztiekin batera. Baina ni beltza naiz, eta bakartu egiten naute.

Neguko egun hotz eta elurtsu batean, parkeko jolastokian katutxo guztiek elkarrekin jolasten zeuden. Baina ni ez ninduten jolastera gonbidatu baztertu egiten ninduten beltza nintzelako.

Katu guztiak primeran pasatzen zeuden bitartean, ni jolastokiko eskutaleku hotz eta ilunean nengoen, bakar-bakarrik.

Oso goibel nengoen. Baina udaberriko egun eguzkitsu batean nire bizitza aldatu zen, Unai ezagutu nuen mutiko maitagarria eta alaia.



Egun hartan jolastokiko neure ezkutalekuan nengoen bakar-bakarrik. Eta halako batean txorizo usaina nabaritu nuen. Neure ezkutalekutik irten eta mutiko txiki bat ikusi nuen, esku artean txorizo pixka bat zuela. Gosez amorratzen nengoen eta jatera hurbildu nintzen.

Orduan mutikoak laztandu egin ninduen.

Oso harriturik nengoen, nire bizitza gustian inork ez banindduen laztandu.

Oso pozik sentitu nintzen, mutikoa eta biok hizketan aritu ginen pixka batean, eta elkar ezagutu genuen.



Unaik, kontatu zidanez, jendeak ez zuen katutxo beltzik nahi, sorte txarra ematen bait zuten. Baina berari, ez zion axola. Berarentzat katutxo guztiak bait dira berdinak eta nahiz eta kolore desberdina izan denak direla katutxoak.

Oso pozik sentitu nintzen. Azkenean laguntxo bat ezagutu nuen eta nahiz eta beltza izan berdin-berdin maitatu ninduen.

Parkean 3 urte bizi ondoren, Unairen familia ezagutu nuen, baita neure etxe berria ere.

Orain, munduko katutxorik alaiena naiz. Familia eder batean bizi naiz. Unaik erakutsi zidan egia. Zuria, nahiz beltza... ez duela ardura!





L.H. 6. maila

## Eneko Oleaga Goikolea

«Gehien gustatzen zaidana lagunekin jolastea da»

# «Aitonari esker»

## AITONARI ESKER

Bazen behin Aimar izeneko mutiko bat Goizuetako baserri batean bizi zena. Aimar bere guraso eta aitonarekin bizi zen. Aimar aitonarekin oso ondo eramaten zen, gauza asko egiten zituzten elkarrekin, baina gauza bat zegoen Aimarrek ezin zuena egin, aitonaren logelan sartu.

Aimarrek 8 urte zituela bere aitona hil egin zen. Aimar oso triste egon zen aste horretan. Handik aste batzuetara Aimarrek aitonak idatzitako testamentua irakurri zuen. Testamentuan Aimarrentzat logela zela jartzen zuen. Aimar momentu hartan asko poztu zen, baina baita urduritu ere ez zekielako zer egon ahal zen logela barruan. Aimar etxera heldu eta segituan aitonaren logelara joan zen. Logelara sartzerakoan ohea eta bi armairu baino ez zituen ikusi. Aimarrek ez zuen ulertu aitonak zergaitik ez zion sartzen uzten. Orduan Aimar pentsatzen hasi zen eta pentsatu zuen logelan sekretuen bat egongo zela. Orduan armairu bat zabaldu zuen, armairu batean arropak baino ez zeuden. Jarraian beste armairura joan zen eta han atetxo bat ikusi zuen. Atea zabaltzen ahalegindu zen baina ezin izan zuen. Atea giltzez zabaldu behar zen,

Aimar pentsatzen hasi zen. Momentu hartan gogoratu zen aitonak giltz bat eman ziola txikia zenean baita esan zion ez galtzeko oso baliotsua zelako. Aimar giltzaren bila joan zen korrika eta aurkitu zuenean atea zabaldu zuen. Atea zabaltzean beste gela batean aurkitu zen baina ez zen gela normal bat. Gela hartan aitonaren gaztetako argazkiak zeuden: eskupilotara jolasten, posterrak, txapelak eta abar. Aitonari Olaizola izena-gaitik ezagutzen zitzaion. Egun hartan Aimar ohartu zen eskupilotaria izan nahi zuela.

Urteak pasatu eta gero egun batean Aimarri banakako eskupilota txapelketa bat jolasteko deitu zioten eta Aimar txapeldun geldidu zen. Harrezkero hobetzen eta hobetzen joan da beti eta orain oso txapelketa garrantzitsuak jolasten ditu. Aimar orain Olaizola II.a da eta egiten duen guztia bere aitonaren omenez egiten du.





Lucia Aretxederreta Llor
«Bizikletan ibiltzea, mendira joatea
eta lagunekin egotea dut gustukoen»

# «Ipuinean sartuta»

## IPUINEAN SARTUTA

Bazen behin Nora izeneko neskato bat. Norari ipuinak irakurtzea gustatzen zitzaion eta Txanogorritxoren ipuina irakurtzen hasi zen. Baina, bat-batean ipuinera sartu zen.

-Non nago? Zer da hau? -galdetu zuen Norak.
-Nor zara zu? -galdetu zion Txanogorritxuk.
-Ni Nora naiz eta zu? -erantzun zion.
-Ni Txanogorritxu naiz, baina ipuinaren ze pertsonaia zara?
-Ez dakit, irakurtzen egon naiz eta orain hemen nago! -esan zion.
-Ez dakit zer gertatu den, baina lagun bat daukat eta seguru berak jakingo duela -esan zuen Txanogorritxuk.

Txanogorritxuren lagunarengana joan ziren biak. Heldu zirenean Norak dena kontatu eta hau erantzun zien:
-Ipuinetik irteteko modu bakarra dago.
-Zein? -galdetu zion Norak.
-Ipuina jarraitu beharko duzu eta amaitzen denean irtengo zara.

Norak eta Txanogorritxuri esnesnak eman zizkioten eta ipuina hasi zen.

Amatxok otzara bat eman zion Txanogorritxuri eta Norarekin amonaren etxera abiatu ziren.

Bidean otsoa topatu zuten baina Norak ipuina eszagutzen zuenez ez zioten kasurik egin orduan otsoa arinenetan joan zen amonaren etxera eta arinago heldu zen. Berandu kan zen Nora eta Txanogorritxu heldu zirenenerako. Amona ez zegoen ohean, bere ordez otsoa zegoen ohean sartuta. Nora ez zen gogoratzen ipuinaren zati hura eta pentsatzen hasi zen. Bitartean Txanogorritxuk ipuina ez zekienez, otsoarengana joan zen:

-Amona zelako belarri handiak dituzun!

-Zu hobeto entzuteko dira.

-Amona zelako aho handia duzun!

-Zu hobeto jateko!

Otsoak Txanogorritxu jan zuen eta Norak ikusi zuenean ehiztariari deitu zion. Ehiztaria arrapaladan heldu zen eta Txanogorritxu otsoaren tripatik atera zuen, baina... non zegoen amona? Bat-batean armairua zabaldu zen eta amona irten zen.

Nora Txanogorritxuz agurtu eta bere etxera bueltatu zen. Inork ez zion sinesten bizitako abentura, baina berak oso ondo pasatu zuen, hori zen garrantzitsuena.


Txanogorritxu



## Naroa Artetxe Urgoitia

«Dantza egitea eta irakurtzea dut gogoko»

# «Oztopoak»

"OZTOPOAK"

Larunbata zen, goizez eta aiton-amonen baserrian nengoen. Kostaldeko herri batean dago, portutik oso gertu, horregatik motordun txalupa baten klaxonak esnatu ninduen. Erlojuari begiratu eta... zazpirak baino ez ziren! Ohean geratu nintzen, buruan nuen arazoaz pentsatzen.

Zerbaitek kezkatzen nauen bakoitzean, baserrira joaten naiz. Bertan naturarekin gozatu eta baita ere nire amonari gertatzen zaidana kontatu, arintzen bait ditut nire buruhausteak. Goibel nengoen, aurreko egunean nire amarekin eztabaida gogorra izan nuelako.

Amonarekin hitz egiteko irrikan nengoen, nire arazoa azaltzeko ahalik eta azkarren, baina goizegi iruditu zitzaidan altxatzeko, eta ohearen epelean geratzea erabaki nuen, sukaldean zaratak entzuten hasi nintzenerarte. Kafe eta opilaren usaina heldu zitzaizkidanean sudurrera, altxatu, dutxatu eta jantzi ondoren, hara joan nintzen gosaltzeko asmoz. Momentu hori aprobetxatu nuen nire





bainualdea lasaitzeko eta amonak -zelan?- galdetu berain laster hasi nintzen nire arazoa azaltzen, opil goxoari agintxada bat eman ondoren.

-Ez hain ondo! -esan nuen.

-Zer bada? -esan zuen amonak, kafeari zurrupada bat ematen zion bitartean.

-Begira amona, pasadan egunean nagusitan erementaria izatea gustatuko litzaidakela komentatu nien gurasoei, eta mutilen ogibidea esan zidaten legez, izugarrizko disgustua hartu genuen denok.

-Arrazoi dute! -gehitu zuen aitonak.

-Hori uste duzu? -erantzun nion nik. -Zuk dantza ikasiko bazenu, nik ez nizuke ezer esango -jarraitu nuen nik. Hau entzutean isil-isilik geratu zen.

-Ba, niri ideia ona iruditzen zait -moztu zuen amonak. -Gurasoekin lasai-lasai hitz egin beharko duzula uste dut, nik babestuko zaitut -esan zidan.

Hurrengo egunean, gurasoak, nire bila etorri ziren.

Amona, ama eta hirurok baserriko inguruetik ibiltzen joan ginenean, aprobetxatu genuen gaiari eusteko natura gozatzen genuen bitartean. Amonak esan zion, ezagutzen zuela lagun baten Karua, suhiltzailea izaten ez ziotela utzi eta ez dela zoriontsu bizi, beti dagoelako pena horrekin. Nik esan nion edozein arte-lan bezalaxe lana eta bihotza jarriz gero, arrakasta handia lortzeko bidea zela. Gainera niri soldagailuak asko gustatzen zitzaizkidan... Horela konbentzitu nuen!

Hamar urte pasatu dira eta nire ametsa lortu dut. Nire tailerra daukat eta lan asko. Itzel disfrutatzen dut metalak lantzen eta emaitzak begiratzen. Denok ekin behar diogu OZTOPOAK gainditzeari, ahalmen berdinak ditugun legez, nork esan du errementaria izatea mutilen ogibidea dela?





Amaia Zarrabeitia Elorriaga
«Nire zaletasunak kirola eta natura dira»

# «Munduko jostailurik dibertigarriena dut»

## Munduko jostailurik dibertigarriena dut

Bazen behin Galdakaon bizi zen familia dirutso bateko ume bat, Lander zuen izena eta bost urte zituen. Begi marroiak zituen, ile beltza, ez zen oso altua ezta oso txikia ere, eta beti nahi zuen jostailu berriak izan!!!!

Egun batean bera zihoan eskolara ume berri bat joan zen.
-Kaixo ni Lander naiz eta zuk nola duzu izena?- galdetu zuen Landerrek.
-Nik Jon dut izena!-esan zuen Jonek
-Nahi ahal duzu etorri nire etxera jolastera?-galdetu zuen Landerrek
-Bale!!!!- erantzun zuen Jonek

Egun hortako arratsaldean bi lagunak Landerren etxera joan ziren jolastera. Landerren etxera heldu zirenean Lander palazio batean bizi zela konturatu ziren.

Ondoren jolasteko gelara joan ziren, jostailu pila bat zeuden: kotxeak, play mobileko baserria, eskalextria, baloiak, raketak ......

-Vauuuuu!!! Hau jostailu pila!-esan zuen Jonek
-Zuk zenbat jolas dituzu etxean?-galdetu zuen Landerrek
-Zuk dituzunak baino gutxiago!-erantzun zuen Jonek

Eta jolasten hasi ziren. 6:30 ziren eta Jonen ama heldu zen bere semea bila, jertse zahar eta itsusi bat soinean zuela. Landerren ama atea irekitzerakoan eta Jonen amak zuen itxura ikusterakoan......
-Aaaaaaaa!!! Ez duzu markako jertsea!!-Oihukatu zuen Landerren amak.
-Ez, zertarako behar dut markako jertsea?-erantzun zuen
-Amatxo, heldu zara!-esan zuen Jonek alai.

Hurrengo egunean eskolan, Jonek Lander gonbidatu zuen bere etxera, etxera heldu eta egongelara joan zire. Lau bost, jostailu baino ez zeuden.
-Ze jostailu gutxi!!!-esan zuen Landerrek
-Nik jostailu gutxi ditut, baina munduko jostailurik zoragarriena dut!!-esan zuen Jonek.
-Zer da, auto teledigidatua, playmobileko piraten barkua?-galdetu zuen Landerrek harrituta, jakiminez.
-Ez, imajinazioa da jostailurik onena! Zuk jostailu asko dituzu eta denak plastikoz egindakoak! Eta Lurra kutsatzen du!-erantzun zuen Jonek

-Arrazoi duzu, hemendik aurrera ez dut jostailu askorik eskatuko Olentzerori!- esan zuen Landerrek, Kartoizko kaxa batekin astronautetara jolastuko dut.

Landerrek aita Lander bila joan eta etxera heldu zirenean, amak jostailuak zituen Landerrentzat.
-Begira Lander!!! Jostailu berriak!!!-esan zuen amak poz-pozik.
-Ez ditut nahi, eman probreei!-esan zuen Landerrek haserredurik

Esan eta egin. Horrela Landerrek Lurra gehiago ez suntsitzen laguntzen hasi zen.
Orain badakizu zer egin, Lurra ez kutxatu.




Barrutia
6. Maila



Garikoitz Txurruka Foruria
«Gora nire lagunak eta ni sniff, sniff!!»

# «Aitonaren txalupa»

## AITONAREN TXALUPA

Martin hamabi urteko mutil bat zen, Mundakan bizitzen zen, gustukoen zituen gauzak surf egitea, portuan bainatzea... baina gehien gustatzen zitzaizkionak bideojokoak ziren, hau da, play stationa, ordenagailuko jolasak, eta horietatik gehien, bere urtebetetze gestan ekarritako mugikorra, azkeneko modeloa baitzen, benetan gustukoa!

Bere aitonen etxean bizi zen, bere txakurra Bizkorrekin, bere arreba Laura, bere aitona Jose Mari eta, bere gurasoak, Aitor eta Miren.

Amona Isabel orain dela bi urte hil zen, eta ordutik, aitona Jose Mari, egunero arratsalde guztietan, arrantzan irteten zen bere Eguzki-Lore txaluparekin. Hori dela eta, sarritan txipiroiak, txitxarroak... izaten zituzten afaltzeko.

Aitonak, Martini berarekin joatea eskatzen zion baten baino gehiagotan, baina Martinek ez zion jaramonik egiten, gainera gurasoek ere, nahiago zuten Martin etxean gelditzea, itsasoak beldurra ematen baitzien.

Larunbat goiz batean biak bakarrik zeudela, itsasoratzea erabaki zuten. Bokadilo bi egin, ur botila bat hartu, eta itsasorantz abiatu ziren. Janariarekin batera aitonak betidanik eramaten zituen tresnak, hauek ziren: arrantzarako amua, bizia salbatzeko txalekoak, oraingoan bi, berarentzako eta Martinentzako noski eta, larrialdietarako bengala bat. Zorionez azken hau, aitonak inoiz ez erabilitako tresna bat zen!

Poliki-poliki, txalupa kostatik urruntzen joan zen, eta kostaldea ikusten ez zen unean, aitonak txalupako motorra isildu eta arrantzan hasi ziren. Arrantzan egin eta jan ondoren, ordu pare bat edo pasatu ziren, beraientzat ez hainbeste, kontuak esan hortik eta hemendik, barre piloa egin..., Horrela pasatu zuten denbora!

Etxera itzultzeko ordua heldu zitzaienean, amuak batu, tresna
guztiak lekuetan jarri... eta halako batean, zerua oso ilun
eta itsasoa oso zakar jarri zen. Aitona Jose Marik, panorama hura
ikusita, zerbait gertatuko zela konturatu zen. Eta horrela pentsatu,
eta horrela izan; bat batean itzelezko olatu batek txalupa jo eta
aitona itsasora hondoratu zuen. Txalupa martxan zegoen eta Martini,
aitona atzean geldituko zen beldurra sortu zitzaion. Oso urduri
jarri zen, zer eginik jakin gabe baina aitonaren oihuak entzun
bezain laster timoia hartu, eta txalupari bira ematen saiatu zen.
Oso gogor zegoen, olatuen bultzakadak ez zizkioten bat ere ez
laguntzen, baina azkenean hanka bien indarrekin bira ematea lortu
zuen. Hasieran ez zuen aitona ikusten inondik inora, zaratak hasi
ondoren, garrasi batzuk entzun zituen eta Martin bertarantz abiatu
zen. Zaratak gero eta hurbilago entzuten ziren, eta azkenean bai!
Aitona han zegoen!, ia indar gabe baina oraindik bizirik!. Martinek
oso azkar txalekoa bota zion eta horrela aitona etxera itzultzea
lortu zuen. Ezin da deskribatu beraien poza, haien besarkadak...

Egia esan Martini esker aitonak bizirik jarraitzen zuen!

Oraingoan bai, mutil bat bezala portatu zara! Errepikatzen zuen behin eta berriro aitonak.

Handik aurrera eta bere bizitzan zehar, aitonaren hitzak ez zitzaizkion inoiz ahaztuko, ezta egun hartan gertatutakoa:

-Portatu zara, Martin, bai mutil, portatu zara!!!





Nerea Vazquez Fernandez
eta Irati Unzueta Cuende

«Kirola egitea eta naturaz
gozatzea gustatzen zaigu»

# «Ostadar zuria»

## Ostadar zuria

Udako oporretako azkenengo egunak ziren, baita Afrikatik egindako bidaia luze baten azken eguna ere Mikelentzat. Kairo-tik Bilbora zetorren hegazkinaren barruan bidaian gertatutako pasadizoak pentsatzen zegoen bitartean, zeruan zerbait bitxia ikusi zuen. Hodeien azpitik ostadar bat ageri zen, kolore biziak izan beharrean, elurra bezain zuria zena. Gurasoak lo gozoan zeuden, baina bapatean Mikelen aita esnatu eta semea begiak zabal-zabalik leihatilatik begira ikusi zuen.

-Zer seme, zeri begira? -galdetu zion aitak.

-Eh?... ezer ez, ezer ez -erantzun zuen Mikelek harrituta oraindik.

-Ziur zaude?

-Beno... ba... inoiz ikusi al duzu ostadar zuririk? galdetu zion semeak jakin-gurez.

-Ez seme! Ze burutazio dira horiek?

-Ez da burutazioa, egia da. Oraintxe ikusi dut bat -erantzun zion Mikelek serio jarrita.

-Ba nik inoiz ez dut entzun halakorik denik! esan zuen sorbaldak jasoz.

A zeukala presa etxera heltzeko mutil! -bota zion osabak Mikeli zekarren arrapaladan ikusita.

-Aizu, osaba, zuk inoiz ikusi al duzu ostadar zuririk?

-Ostadar zuririk? -esan zuen harriturik Anderrek- Afrikatik luzaroan bidaiatzeak kalte egin dizu. Eguzki gehiegi hartu duzuela uste dut -gaineratu zuen.

Mikel, pentsakor, kotxera sartu zen eta etxera heldu bezain laster, internetera konektatu zen ostadar zuriei buruzko informazioa biltu nahian. Baina ez, ez zuen ezer aurkitu. Hurrengo egunak zeruari begira eman zituen. Bere lagunei ere galdetu zien inoiz ikusi zuten halakorik, baina inork ez zekien ezer.

Ikasturte berriaren lehen eguna heldu zen eta gau osoa lorik egin gabe bazegoen ere, ohetik altxatu eta inoizko bizkorren prestatu zen eskolara joateko. Han zegoen, gelara sartzeko prest, irrikitan maisuari galdera bera egiteko. Baina, lastima, inork ez zion ezer argitu, ez maisuak ez besteek.

Itxaropena galduta etxerako bidean zihoala, auzokide batekin topo egin zuen.

-Eguerdi on, Mikel. Zer moduz? Zelan oporrak Afrikatik?

-Kaixo, Erramun. Oporrek ez dakit mesederik egin didaten -erantzun zion Mikelek.
-Zergaitik diozu hori? -Oporraldia beti da ona! bota zion auzokideak.
-Bai, baina buruhauste ederra ekarri dut handik.
-Zergatik? -Kuriositatea ezkutsiz.
-Begira, hegazkinean gentozela ostadar guria ikusi dut eta...
-Zer? Zer diozu! Ostadar zuria ikusi duzula? harritu zuen Erramunek.
-Bai, bai, ikusi dut! Zer dakizu horri buruz?

Orduan Erramunek bere etxe atzeko lorategira eraman zuen mutila eta, biek elkarren ondoan eserita, inguruan zituzten txori, lore, erle, eta abar ikusten ari ziren, baita landareen usainak hartu eta haizeak zekartzan soinu ederrak entzuten ere.
-Begira zein inguru ederra daukagun eta gure betebeharra da hau zaintzea. Baina Ama Lurra negarrez ari da eta horregatik ostadarrak ez du kolorerik -kontatu zion Erramunek.
-Zergatik dago hain triste? -galdetu zion Mikelek begiak zabalduz.
-Gure erruz, gure ingurua hondatzen ari garelako.
-Eta zer egin dezakegu? -jakin-minez Mikelek.
-Zuok gaztetxoek salba dezakezue lurra. Zabal ezazu mezu hau zure lagunei:

Bilbora heldu ziren eta orindik burutik ostadar zuriaren kontua kendu ezinik, hegazkinetik presaka atera ziren itxaroten zegoen asaba Anderrenengana heltzeko.

Zazpi egunetan zehar zazpi ekintza on egin behar dituzue elkarrekin naturaren alde.
Mikelek eskolako, auzoko eta herriko gazteak bildu eta herriko txoko guztietan loreak eta zuhaitzak landatu zituzten, txorien habiak ipini, errekak garbitu eta horrela aritu izan ziren aste oso batez.
Zazpigarren eguneko ekintzaren ondoren, gazteek zeruntz begiratu eta inoizko ostadarrik handiena eta kolore bizikoena ikusi zuten.

Ordutik Mikelen herrian denek zaintzen dute natura badakitelako Ama Lurra dela daukagun altxorrik ederrena.



**GERNIKA-LUMOKO UDALA**
Hezkuntza Saila
Euskera Zerbitzua

**KULTURA SAILA (HPS)**